

Topalekua

110 zk. 2022ko maiatza

EHU/UPVko GIZARTE KONTSEILUA
CONSEJO SOCIAL DE LA UPV/EHU

UNIBERTSITATE PUBLIKOAREN KONTUEK %5,32ko GORAKADA IZAN DUTE AURREKO EKITALDIAREKIKO

Gizarte Kontseiluak 460,6 milioi euroko aurrekontua onetsi du UPV/EHUrako 2022an

UPV/EHUn Gizarte Kontseiluaren Osoko Bilkurak, Bilbon pasa den apirilaren 4an bildu zenak, Euskal Herriko Unibertsitatearen aurrekontua onetsi zuen 2022ko ekitaldirako; 460,6 milioi euroko aurrekontua izango du, hots, % 5,32ko gorakada.

Gizarte Kontseiluaren Osoko Bilkurak Aurrekontua onestea erabaki zuen, joan den martxoaren 31n UPV/EHUn Gobernu Kontseiluak onartutako Proiektua eta Ekonomia eta Finantza Batzordeak proiektu horri buruz egindako txostena aztertu ondoren. Txosten honek berritasun nagusiak aztertzen ditu eta ekonomia- eta finantza-azterketa sakona egiten du kapituluka, programaka eta gastu-unitateka.


Kapituluka egindako analisisian, ikusten da UPV/EHUK, azkenean, honako hauek emango dituela 2022an:

- 354,3 milioi euro **langile-gastuetara** (I. kapitulua), gutzitza % 76,91 eta 2021ean baino % 6,48 gehiago.
- 77,6 milioi euro **gastu arruntetara** (II. kapitulua), gutzitza % 16,85 eta iaz baino % 1,75 gehiago.
- 22,4 milioi **inbertsioetarako** (VI. kapitulua); aurrekontuaren % 4,87, % 7,15ko murrizketarekin 2021. urtearekiko.
- Gainerakoa finantza-gastuei, transferentziei, diru-laguntzei eta Gizarte Kontseiluaren aurrekontuari dagokie. Horren zuzkidura 450.000 euro da.

Sarrerren sailean, 2021. ekitaldiko aurrekontuarekiko aldatuntza nabarmenena "Jasotako transferentzia arruntak" atalean kontzentratzen da, 22 milioi eurotan egin baitu gora. Sail hori Unibertsitatearen finantzaketa-iturri nagusia da eta, urteetan zehar, aurreikusitako diru-sarrerren % 84 ingurura iristen da.


AURREKONTUAREN BILAKAERA, 2013-2022

AURREKONTUA



Iturria: UPV/EHU

URTEAK

UPV/EHU-REN FINANTZAKETAREN BILAKAERA, 2013-2022**Finantzaketaren joera**

2022ko aurrekontuetako finantzaketari buruzko goiko grafikoan ikusten denez, diru-laguntzak (batez ere Eusko Jaurlaritzarenak) Unibertsitatea finantzatzeko formula gisa mantendu dira, diru-sarreraren %84 baitira. Tasa akademikoak, aldiz, unibertsitatea finantzatzaren duten diru-sarreraren %12 dira.

UPV/EHU-REN PLAN ESTRATEGIKOIA BERRITZEN PARTE HARTZEA

2022-2025 urteetarako Plan Estrategikoa berritzen ari da EHU, eta Gobernu Kontseiluari eta Gizarte Kontseiluari aurkeztu zien martxoaren 31ko eta apirilaren 4ko bileretan, hurrenez hurren. Hausnarketa estrategikoaren abiapuntua 2021eko barne-egoera, pandemiaren eragina, unibertsitateko joerak eta tokiko esparru estrategiko sozioekonomikoa eta globala aztertzea da.

Ikuspegi orokor batetik, UPV/EHUko Gizarte Kontseiluak apirilaren 27ko osoko bilkuran alderdi hauek nabarmendu zituen garrantzitsutzat:

- 1- Unibertsitatea sozialki arduratsua eta jasangarria den eragiletzat eta erreferente kulturaltzat kokatzea.
- 2- Europako eta Iberoamerikako unibertsitateetan lidergoz jardutea.
- 3- Gizartearen erronkei erantzutea.
- 4- Prestakuntza ikasleen garapen profesionalera eta enplegarritasunera orientatzea.
- 5- Gizarte-eragileekin lankidetzan jardutea ikerketan eta ezagutza-transferentzian eta, zehazki, ekintzailtza sustatzea.
- 6- Unibertsitate-sareetan eta aliantza estrategikoetan integratzea.
- 7- Ingurunearekiko inplikazio ekonomiko, sozial eta kulturala.
- 8- Unibertsitate-komunitatea osatzen duten pertsonek motibazioa eta inplikazioa sustatzea.
- 9- Gobernu bizkor baten, baliabideak optimizatzearen eta hezkuntza- eta ikerketa-azpiegiturak modernizatzearen aldeko apustua.

Aurrekontu-aldaketak eta Confede

Saio berean, aurrekontua aldatzeko 14 proposamen onartu ziren, 10.000 eurotik gorakoak, guztira 169.704,17 euroko zenbatekoarekin, bulegoko materiala, irakaskuntzakoa, zientifikoa eta inbentariagarria erosteko, eta erabaki zuen 10.000 eurotik beherako 26 proposamen baliozkotuko zirela, guztira 102.987,93 euroko balioarekin.

Azkenik, UPV/EHUk Ekonomia eta Enpresa Dekanoen Espainiako Konfederentzian (Confede) parte hartzea onartu zuen.

HKEE-ko Presidenteak 2018ko eta 2019ko fiskalizazio-txostena aurkeztu zuen osoko bilkuran

Euskal Herriko Unibertsitateko Gizarte Kontseiluak, joan den martxoaren 23an egindako osoko bilkuran, bere Plan Estrategikoaren garapenaren barruan, 2022rako lehentasunezko bost jarduera-ardatz onetsi zituen.

Horietako lehenak laneratzearekin eta prestakuntza-eskaera sozialekin zerikusia du. Ardatz horretan, enpresek eskatzen dituzten eta laneratzeko laguntzen duten prestakuntza-/kualifikazio-beharrak identifikatzen saiatuko dira. Gainera, enprezentzako lagungarriak izan daitezkeen unibertsitate-gaitasunen katalogo bat ezarri nahi da, batez ere enpresa txiki eta ertainentzako lagungarriak izan daitezkeenak, UPV/EHUrekin lankidetzan jarduteko.

Bigarren ardatza ikasleen enplegarritasunarekin erlazionatuta dago. Horretan, ezagutza-arloen arteko topaketak sustatu nahi dira eta Euskal Herriko Unibertsitatearen eta enplegatzaileen arteko lankidetzak sustatzen duten laneratze-emaitzak lortzeko.

EHUko Gizarte Kontseiluaren hirugarren ardatzak sariak eta aintzatespenak abian jartzea aztertuko du. Laugarren ardatzak osoko bilkura monografikoak sustatuko ditu gizarte-eragileekin, eta bosgarrenean, unibertsitate-jardueraren adierazle txostenaren argitalpena eguneratuko da, gizarteari kontuak emateko.

Herri Kontuen Euskal Epaitegia

Gainera, Osoko Bilkuraren saio berean, Herri Kontuen Euskal Epaitegiko (HKEE) presidente Ana Helguerak, Inmaculada Anda kontseilariarekin batera, Euskal Herriko Unibertsitatearen 2018ko eta 2019ko fiskalizazio-txostenak aurkeztu zituen.

Urteko kontuei dagokienez, HKEEk aldeko iritzia eman zuen bi ekitaldietan, baina ezin izan du ondorioz atera zehazteko ea arrazoizkoa den Soberakin Espezifikoa (76,1 milioi euro) gertzea, horren zati bat Gastu Orokorretarako Soberakintzat hartu behar bailitzateke.

HKEEren txostenak, halaber, adierazten du 2018ko eta 2019ko ekitaldiei dagokien aurrekontuaren likidazioak bete egiten dituela finantza-orekaren eta -jasangarritasunaren printzipioak, Urteko Kontuetan dagoen informazioarekin bat etorritik.

Azkenik, Osoko Bilkurak, saio berean, Gizarte Kontseiluaren 2021eko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioa onetsi zuen, dagoen auditorerantz txostenarekin.

Unibertsitate-sistemari buruzko txosten batek agerian uzten du eskola-uzteak UPV/EHU izena emandakoen %13ri eragiten diola

Alde handia dago Espainiako unibertsitate presentzialen eta ez-presentzialen eskola-uztean. Lehenengoetan, batez bestekoa %13,5koa da, eta bigarrenetan, %53,4koa. Azken datu horrek esan nahi du sartzen diren bi ikasletik batek alde egiten duela, Unibertsitateen Ministerioak aurkeztutako txosten baten arabera.

UNIBERTSITATE PUBLIKO PRESENTZIALETAKO GRADU-IKASKETETAKO UZTE-TASAK (2015-16 ikasturtea)

Unibertsitate presentzial publikoak	Gradu-ikasketen uzte-tasa (%)
Carlos III de Madrid	7,2
Salamanca	9,3
León	9,9
Autónoma de Madrid	10,0
Valladolid	10,1
Lleida	10,4
Rey Juan Carlos	10,4
Politécnica de Madrid	11,1
Pompeu Fabra	11,2
Complutense de Madrid	12,0
Alcalá	12,1
Castilla-La Mancha	12,5
Jaén	12,6
València (Estudi General)	12,6
Autónoma de Barcelona	12,7
Girona	12,7
Pablo de Olavide	12,9
Euskal Herriko Unibertsitatea	13,0
Santiago de Compostela	13,0
Cantabria	13,1
Nafarroako Unibertsitate Publikoa	13,1
Murcia	13,2
Barcelona	13,3
Granada	13,3
Politécnica de Catalunya	13,3
Zaragoza	13,4
Extremadura	13,5
Politécnica de València	13,6
Sevilla	13,6
Jaume I de Castellón	13,7
Almería	14,1
Rovira i Virgili	14,2
Málaga	14,3
A Coruña	15,7
Vigo	16,0
Córdoba	16,2
Alicante	16,5
Miguel Hernández de Elche	16,6
La Rioja	16,7
Oviedo	17,2
Politécnica de Cartagena	17,7
Cádiz	18,3
Burgos	18,8
Huelva	19,7
La Laguna	20,0
Illes Balears (Les)	21,5
Las Palmas de Gran Canaria	24,3
Unibertsitate publiko presentzialak	13,5

EAEn, Gradu ikasketetako eskola-uztearen tasa orokorra %11,8koa zen 2015/2016 ikasturtean; gainerako autonomia-erkidegoetan, berriz, unibertsitate presentzial guztien batez bestekoa %13,5koa da. Kopuru hori %53,4koa da unibertsitate ez-presentzial eta berezietan. Eskola-uztearen arazo larriena Urrutiko Hezkuntzarako Espainiako Unibertsitatean (UNED) dago, %58,9ko uzte-tasa baitu.

UPV/EHU, taularen batezbestekoa

Unibertsitate publiko presentzialetako gradu ikasketen eskola-uztearen tasei dagokien taulan, Euskal Herriko Unibertsitatean %13 da, %13,5 globalaren aurrean. Eskola-uztearen tasa baxuena Madrilgo Karlos III.a unibertsitatean dago (%7,2) eta, handiena, Kanaria Handiko Las Palmasen (%24,3).

Txosten honen egileak, María Fernández Mellico-Soto soziologoak eta Madrilgo Complutenseko Hezkuntza Fakultateko irakasleak, honako hau dio: "Ikerketa hau aurrerapauso garrantzitsua da unibertsitate-ikasketetako eskola-uztearen prebentzioan aurrera egiteko".

Zenbat eta adin handiagoa, orduan eta uzte handiagoa

Oro har, aipatu txostenak agerian uzten du ikaslearen adinak eragina duela Gradu ikasketak uzteko probabilitatean, hau da, "zenbat eta adin handiagoa, orduan eta uzte handiagoa". Halaber, "unibertsitateak ikasleak onartzeko ezarritako nota zenbat eta handiagoa izan, orduan eta txikiagoa da ikasketak utz ditzaten probabilitatea".

Unibertsitate-ikasketak uzteko probabilitateari dagokionez, argitalpen honetan ezagutza-adarrak handienetik txikienera daude ordenatuta, honela: Arteak eta Humanitateak; Informatika; Zientziak; Gizarte Zientziak eta Zientzia Juridikoak; Ingeniaritza eta Arkitektura; eta Osasunaren Zientziak.

Arteak eta Humanitateak, eskola-uztearen lehen postuetan

Ondorio gisa, txostenak nabarmentzen du "Arteak eta Humanitateak adarreko ikasleek dutela ikasketak uzteko probabilitate handiena, Osasun Zientzietako ikasleek aurrean, horiek probabilitate txikiena baitute". Unibertsitateen Ministerioak aurkeztutako argitalpen honekin, Espainiako sistema presentzialeko Gradu ikasketen eskola-uztea ikertu nahi da, eta horren kausa eta ezaugarriak identifikatu, unibertsitate-komunitate guztiak martxan jartzeko neurriak adoste aldera.

Aztertutako datuak Gradu bat ikasten duten 1.340.000 ikasleri dagozkie eta 2015-2016 ikasturtekoak dira.

Euskadiko kontratu mugagabeen bolumena 80.545 izan da 2021ean eta aldi baterakoena, 781.181

Lanbidek '2021eko Lan Merkatuaren Balantzean' egiaztatu duenez, EAeko kontratu mugagabeen tasarik handiena, okupazio-taldean arabera, zuzendaritzako pertsonena izan da.

Hamar kontratutik ia zazpi lanpostu mota horri dagozkie. Beste muturrean, kontratazio-eredu horren tasarik txikiena zerbitzu-sektorearen profil kualifikatuari dagokio, guztizkoaren % 7,2arekin.

Kontratu mugagabeen artean, honako hauek daude: administrazio-profila (% 14,8), artisauen eta manufakturan, eraikuntzan eta meatzaritzan kualifikatuen profila (% 13,3), profil kualifikatua nekazaritzan eta arrantzan (% 12,9), laguntzako profil tekniko eta profesionala (% 11,8), profil tekniko eta profesional zientifikoa eta intelektuala (% 10,4), operadore-profila (% 9,5) eta kualifikaziorik gabeko profila (% 7,7).

Lanbideren txostenaren arabera, 2021ean 861.726 kontratu sinatu dira EAEn lanpostu baterako, hots, aurreko urtean baino % 22,5 gehiago. Sexuaren arabera, banaketa nahiko orekatua da, kontratuen % 50,8 gizonenak izan baitira eta % 49,2, emakumeenak.

Atzerritarrek sinatutako kontratuen pisua % 14,9 izan da, pasa den urteko ehuneko bera. Lurralde Historikoen arabera, Bizkaiak izan du kontratuen guztizkoaren % 50,4; atzetik, Gipuzkoa (% 30) eta Araba (% 19,7) geratu dira.


Kontratu mugagabeen pisua % 9,3 da

2021ean egindako kontratu motaren harira, mugagabeen pisua % 9,3 izan da (iaz baino 0,8 ehuneko-puntu handiagoa). Aldi baterako kontratuen pisua, berriz, % 90,7 izan da. Kontratu mugagabeen % 50,9 gizonenak izan dira eta % 49,1, emakumeenak. Sexuaren arabera banaketa ere oso orekatua izan da aldi baterako kontratuen artean. Sinatutako kontratuen guztizkotik, ikusi da % 39,4 aldi baterako kontratuak izan direla.

Lanbidek 2021eko txostenean dio kontratu mugagabeen pisu txikiak (% 9,3) ez duela esan nahi modalitate horren kopurua txikia denik. Zenbaki absolutuetan, EAeko kontratu mugagabeen bolumena 80.545 izan da; aldi baterako kontratuen kopurua, berriz, 781.181 izan da. Lanbideren arabera, "kontratu mugagabeak benetan egonkorak izango balira, urte gutxiren buruan aldi baterako landunen kopurua nabarmen murriztuko litzateke". Hala ere, ez da horrela gertatzen, askotan kontratu mugagabea sinatzeak ez baitakar berarekin enpleguaren egonkortasunik.

Adinaren arabera, kontratu mugagabeen ehuneko handiena izan duen kolektiboa, barra-grafikoan ikus

daitekeenez, 54 urtetik gorakoena izan da (% 10,6); atzetik, 35-44 urte bitarteko kolektiboa (% 10,2) eta 45-54 urte bitartekoena (% 10,2). 24 urtetik beherako pertsonak izan dira kontratu mugagabe gutxien sinatu dituztenak (% 6,1).



Euskadiko sektorekako okupazio orokorrari dagokionez, Zerbitzuek nabarmen jarraitzen dute buruan egoten, guztizkoarekiko % 72,4 baitira. Urrutitik, Industria (% 20,9), Eraikuntza (% 5,9) eta Lehen Sektorea (% 0,8) daude. Ikus taula.

SEKTOREKARO OKUPAZIOA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN

		Okupatuak	Gustizkoarekiko
Datu orokorrak	Lehen sektorea	7.800	% 0,8
	Industria	199.200	% 20,9
	Eraikuntza	55.900	% 5,9
	Zerbitzuak	688.400	% 72,4

Aurtengo protagonistak komertzialak eta ingeniariak izango dira

2022an ezinbestekoak izango diren profilen eskaerari dagokionez, 'XVII. Los+Buscados de Spring Professional 2022' txostenak dio gero eta gehiago arlo digitaletan oinarritutako profil teknologikoak bilatuko direla. Aurtengo protagonistak komertzialak eta ingeniariak izango dira.